Txiberta, bete gabeko ikasgaia: herri gisa jardutea

Gaur ekitaldi honetan nirekin dauden lagunek 1977ko udaberriko Txibertako bileretan parte hartu zuten, zenbait alderdi, mugimendu eta erakunderen ordezkari gisa, gure herriaren historiako une erabakigarri batean. Francisco Franco diktadorearen heriotzak eta abian zen erreforma politikoak erantzun bateratu bat antolatzeko beharraren aurrean jarri zituzten, egoera zailean: urte hartako ekainean egitekoak ziren Espainiako lehen hauteskunde orokorrak deituta zeuden, eta euskal preso politikoen amnistia oraindik lortu gabe zegoen.

Egoera hartan, Telesforo Monzonek deitu zien. Unean uneko erronka bati erantzutea baino askoz harago zihoan helburua planteatu zien. Indar abertzaleen arteko adostasuna aldarrikatzen zuen, euskal estrategia nazional bat eraikitzeko, bere ordezkaritza politiko eta instituzionalarekin, Euskal Herriko indar demokratiko ez-abertzaleei ere irekia.

Agirreren gobernuaren esperientziak inspirazio-iturri izaten jarraitu behar zuen. Euskal Herria herri ukatu eta zapaldua zen, hizkuntza hilzorian eta nazio eskubideak zanpatuta zituena. Bere eskubide historikoak defendatu eta eskuratzeko, ordezkatzen zuten indarren arteko elkarlana behar zuen. Agirreren gobernuaren esperientzia hark erakutsia zuen posible zela borondate desberdinak biltzea, herriarekiko konpromiso partekatu baten inguruan.

Txibertako elkarrizketa haiek, ordea, ez zuten beren helburua lortu. Desadostasuna, hasieran, hauteskunde haien aurrean hartu beharreko jarreran gauzatu zen: baldintzarik gabe parte hartzea, baldintzapean parte hartzea edo abstentzioaren alde egitea. Baina desadostasunak estrategia desberdinetan mamitu ziren azkenean, elkarren aurkakoetan ere bai. Orduan irekitako zauria, zoritxarrez, sakona eta luzarokoa izan zen.

Urte batzuk geroago Mirentxu Purroy kazetariak, bilera haien lekuko eta akten gordailuzain izandakoak, idatzi zuenez, gutxienez “elkarren arteko urruntasuna murriztu” zitekeen, han bildutakoek “elkar aitortu izan balute etorkizuna eraikitzeko neurri berean beharrezkoak ziren katebegi gisa”.

Gaur nirekin dauden lagunek bide desberdinak egin dituzte harrezkero, batzuetan bat etorrita eta beste batzuetan elkarrengandik urrunduta. Beren erabaki zuzen eta okerrekin. Ez dira orain elkartu ibilbide haiengatik elkar epaitzeko, garai hartan KAS Alternatiban oinarritutakoak izan edo Gernikako Estatutuaren aldeko apustutik abiatutakoak izan. Guztiak atera ziren Txibertatik gure herria askatasun eta autogobernu maila handiagoetara eramateko borondatez. Baina batasun faltak ahulduta atera ziren, eta, gainera, Espainiako Estatuaren jokabideak beren estrategia desberdinak oztopatu zituen hamarkadetan zehar.

Estatuaren jokabide zeken hori euskal Estatutuarekin hartutako konpromisoak behin eta berriz urratzean eta autogobernua murrizteko ahaleginetan gauzatu da. Carlos Garaikoetxea lehendakariak gogor salatu zuen 1982ko uztailean, LOAPAren aurka Eusko Legebiltzarrean egindako hitzaldian: “Demokraziak zentzua galtzen du gure herriaren eskubide zilegiak suntsitzea badakar”. Onartu zenetik ia bost hamarkada igaro direnean, Gernikako Estatutua osorik bete gabe dago oraindik.

Estatuaren jokabide errepresiboa ere salatu behar dugu. Hamarkadetan uko egin dio arazo politikoaren muinari heltzeari –Ibarretxe Planari ateak itxiz edo ETArekin negoziatzeko ahaleginak boikoteatuz–, eta, aldi berean, giza eskubideen urraketan oinarritutako jarduerak sustatu ditu. Tortura, gerra zikina eta espetxe politika ankerra irtenbide justu eta iraunkorrak bilatzea oztopatu

duen Estatuaren estrategia integral baten parte izan dira. Noiz aitortuko da eragindako min hori guztia?

Gaur hemen agertzen garenok pozez eta itxaropenez bizi izan genuen duela hamabost urte hasitako ziklo aldaketa, ETAk jarduera armatua behin betiko uztea izan zuena adierazle nabarmenena. Harrezkero, aurrerapauso politiko esanguratsuak egin dira, hala nola Nafarroan hamarkadetan agindu zuen erregimenaren arrakalatzea edo Ipar Euskal Herrirako erakunde propio baten sorrera. Era berean, badirudi nahikoa adostasun dagoela Euskal Autonomia Erkidegorako estatus politiko berri baten inguruko negoziazio prozesuarekin jarraitzeko. Indarrak batu eta herri ikuspegiz jarduteak aukera politiko eta sozial berriak zabaltzen dituela erakusten dute aurrerapauso horiek. Hain zuzen ere, horixe egiten saiatu ziren gaur nirekin dauden lagunak Txibertan, baina orduan ez zen posible izan ahalegin hura bururaino eramatea.

Hala ere, hodei beltz eta mehatxagarri berriak ikusten ditugu euskal herritarren eskubideen gainean. Bloke erreakzionarioa Espainiako Gobernura iristeak ekarriko lukeen arrisku larriaz ohartarazi behar dugu. Helburua lortuz gero, lehenik, Estatuaren plurinazionaltasunaren aitortzan aurrera egiteko ahalegin apalak zapuzten saiatuko da; ondoren, atzerapausoak eragiteko erasoaldi bati ekingo dio, gure autogobernuaren, eskubide politiko eta zibilen, hizkuntzaren eta eskubide sozialen aurka. Arrisku horren aurrean ezin gara geldirik egon. Bi une historikoen arteko desberdintasun guztiak kontuan hartuta ere, gaurko bidegurutze honen garrantziak duela ia berrogeita hamar urte bizitako egoera dakarkigu gogora.

Gaur nirekin dauden lagunak zatituta atera ziren orduan Txibertako elkarrizketetatik, elkarren aurka ere bai. Gaur, zorionez, elkarrekin agertzen dira, beren usteei uko egin gabe, EH Bilduren inguruan eraikitzen ari den alternatiba subiranista eta herritarraren alde. Haien konpromisoak bultzatzen gaitu abertzale, subiranista eta aurrerazaleen elkargune gisa indartzen jarraitzera eta, aldi berean, beste indar eta sektore batzuekin elkarlana sustatzera, herri gisa jarduteko, bloke erreakzionarioaren gorakadari aurre egiteko eta Euskal Herriaren eraikuntza nazional eta sozialean aurrera egiteko.

Txibertako ikasgaia ezin da aukera galdu baten oroitzapenera mugatu. Gaurko erronkei elkarrekin aurre egiteko balio behar digu. Duela ia berrogeita hamar urte lortu ez zena gaur gauzatzeko: herri gisa jardutea.